

PLANGINTZA:

1. ZER DA PROGRAMATZEA?

"Aurretiaz pentsatutako ekintza eta ekiteetan arrazionaltasun eta antolakuntza handiagoa sortzen duteneko prozesuak erabiltzean datzan ekitea da, prozesu horiekin helburu zehatz batzuk lortu nahi direlarik, zenbait tresna erabiliz, medioak eta baliabideak urriak eta mugatuak direla kontutan izanik".


2. 9 GALDEGAIEN TEKNIKA

Zer da? Eredu hau, prozesu soziokulturalak ekite programetan bihurtzeko lanean, ohizko galdegaien zerrendaren -zergatik, nori, zertarako, nola, noiz, non, norekin, zerekin-, aplikazioan oinarritzen da. Oso erreza den teknika da, baina, era berean, proiektu baten elaborazioak eta bere plangintzak suposatzen duen arazoa konpontzeko oso metodo eraginkor eta osoa da.

Nola garatzen da? Talde txikian, koordinazio edo gestio taldeetan, e.a., garatzeko teknika da. Hala ere, gero ikusiko den bezala, erantzuna prozesu osoan inplikaturako talde handiago batetik etor daiteke: helburuen planteamendua, egin beharreko proiektuak,...

Noiz aplikatu daiteke? Programen diseinu edo zirriborro orokorrean, abiapuntu gisa, gestio eta plangintza teknikekin osatzeko. Bai plangintza estrategikoa zein operatiboa diseinatzeko erabil daiteke, baina soilik diseinurako.

Inguruaren azterketa ondoren:



INGURUAREN AZTERKETA EGIN ONDOREN:

Zergatik ekingo da

Ekintza, aurretiaz egindako inguruaren azterketaren arabera, arrazonatzean datza. Ekintza horren jatorria eta oinarria definitzea; diagnostikoan ikusitako aukerak eta beharrak bilatzea.

Zer egingo da

Azterketa eta diagnostikoaren ondoren, egingo dena erabakitzen da. Galdera honi erantzutean, proiektuaren funtsa, baita bere izena ere, definitzen da: aukeratutako ekintzari izena jartzea.

PROIEKTUA AUKERATU ONDOREN:

Zertarako egin

Hau da, burutuko den ekintzarekin lortu nahi diren helburuak formulatzea. Galdara honen konponbidea lehenagoko inguruaren azterketan egongo da, beharrak eta nahiak aukerekin bateratuz: aukerak eta alternatibak, arrisku eta zailtasunekin.

Nori zuzentzen zaio ekintza

Jasotzaileak zehaztea, emango diren ekintzaren jasotze maila ezberdinak zehaztea. Honen aurretikoak, berriro ere, inguruaren azterketan daude. Gai hau funtsezkoa da programazioa egiterakoan

EKINTZA PLANIFIKATZERAKOAN:

Nola egingo den

Alde batetik, aukeratutako ekintza nagusitik sortzen diren ekintza eta eginbeharrak erabakitzea; bestetik, erabiliko den metodologia ikustea. Hirugarren aspektu bat martxan dagoen proiekturako antolaketa egokiena erabakitzea da.

Norekin kontaktzen den

Behar izango diren giza baliabideak zehaztea: koordinazio taldea, laguntza taldeak, laguntzaileak. Era berean, beraien arteko harremana zehaztu beharko da eta ardurak banatu.

Zerekin egingo da

Baliabide materialak eta ekonomikoak: zeintzuk diren beharrezkoak eta zeintzuk dauzkagun jadanik.

Noiz egingo den


Daukagun denbora ezagutzea, lan egutegi zehatza ezartzea, noiz egingo den ekintza bakoitza, zein momentutan garatu behar den eginbehar bakoitza,... Azken finean, gestio eta garatze prozesu guztiaren frekuentzia, aldikotasuna eta denbora-tarteak zehaztea da.

Non egingo den

Proiektuaren zabaltze maila eta jardungo deneko guneak zehaztea.


3. PROGRAMAZIOAREN FASEAK

- Inguruaren azterketa
- Helburuak
- Ekintza
- Metodologia
- Jasotzaileak
- Baliabideak:
 - Gizakienak
 - Ekonomikoak
 - Materialak
 - Teknikoak
- Denboralizazioa
- Ebaluazioa



ELEMENTUAK:

ZERGATIK?	<p>Zergatik ekingo da Ekintza, aurretiaz egindako inguruaren azterketaren arabera, arrazonatzean datza. Ekintza horren jatorria eta oinarria definitzea; diagnostikoan ikusitako aukerak eta beharrak bilatzea.</p>
ZER?	<p>Zer egingo da Azterketa eta diagnostikoaren ondoren, egingo dena erabakitzen da. Galdera honi erantzutean, proiektuaren funtsa, baita bere izena ere, definitzen da: aukeratutako ekintzari izena jartzea.</p>
ZERTARAKO?	<p>PROIEKTUA AUKERATU ONDOREN:</p>
NORI?	<p>Zertarako egin Hau da, burutuko den ekintzarekin lortu nahi diren helburuak formulatzea. Galdara honen konponbidea lehenagoko inguruaren azterketan egongo da, beharrak eta nahiak aukerekin bateratuz: aukerak eta alternatibak, arrisku eta zailtasunekin.</p>
NOLA?	<p>Nori zuzentzen zaio ekintza Jasotzaileak zehaztea, emango diren ekintzaren jasotze maila ezberdinak zehaztea. Honen aurretikoak, berriro ere, inguruaren azterketan daude. Gai hau funtsezkoa da programazioa egiterakoan</p>
NOREKIN?	<p>EKINTZA PLANIFIKATZERAKOAN:</p>
NOREKIN?	<p>Nola egingo den Alde batetik, aukeratutako ekintza nagusitik sortzen diren ekintza eta eginbeharrak erabakitzea; bestetik, erabiliko den metodologia ikustea. Hirugarren aspektu bat martxan dagoen proiekturako antolaketa egokiena erabakitzea da.</p>
ZEREKIN?	<p>Norekin kontaktzen den Behar izango diren giza baliabideak zehaztea: koordinazio taldea, laguntza taldeak, laguntzaileak. Era berean, beraien arteko harremana zehaztu beharko da eta ardurak banatu.</p>
NOIZ?	<p>Zerekin egingo da Baliabide materialak eta ekonomikoak: zeintzuk diren beharrezkoak eta zeintzuk dauzkagun jadanik.</p>
NON?	<p>Noiz egingo den Daukagun denbora ezagutzea, lan egutegi zehatza ezartzea, noiz egingo den ekintza bakoitza, zein momentutan garatu behar den eginbehar bakoitza,... Azken finean, gestio eta garatze prozesu guztiaren frekuentzia, aldikotasuna eta denbora-tarteak zehaztea da.</p>
NON?	<p>Non egingo den Proiektuaren zabaltze maila eta jardungo deneko guneak zehaztea.</p>



PROGRAMAZIOAREN FASEAK

- Inguruaren azterketa
- Helburuak
- Ekintza
- Metodologia
- Jasotzaileak
- Baliabideak:
 - Gizakienak
 - Ekonomikoak
 - Materialak
 - Teknikoak
- Denboralizazioa
- Ebaluazioa